

## **MOZIO ARRUNTA,**

### **IBERDROLAK DONOSTIAN EGUZKI PLAKEN INSTALAZIOEN GARAPENARI JARTZEN DIZKION OZTOPOEI BURUZKOA**

Juan Carlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Donostian eguzki plaken instalazioen garapenerako Iberdrola jartzen ari den oztopoei buruzkoa.

### **JUSTIFIKAZIOA**

2024 urtarrilaren 25ean, Añargi Añorgako komunitate energetikoak salatu zuen Iberdrola bere proiektu energetikoa oztopatzen dabilela.

2022ko abenduan ekin zioten Añorgan Energia Berriztagarrien Komunitatea (EBK) sortzeari, eta komunitatea egituratzen duen kooperatiba da Añargi. Helburu bikoitza du egitasmoak: lehenik eta behin, Añorgako bizilagunen energia kontsumo ohiturak aldatzea, eta energia kontsumoa murriztu ostean, energia berriztagarriak sortzea eta kontsumitzea. Proiektuaren bokazio komunitarioa eztaba daezina da. Horren adibide da sortutako energia nola banatuko duten: % 10 pobrezia energetikoari aurre egiteko, % 30 bazkide kontsumitzaileentzat, % 30 proiektua finantzatzen lagundu duten bazkide kontsumitzaileentzat eta % 30 kooperatibaren gastuei aurre egiteko.

Komunitatea eta kooperatiba eratu ondotik, 2023ko urrian eguzki plaken lehen instalazioa jarri zuten Ikastolen Elkartearen egoitzaren teilatuan, Errekalden. Proiektua auzoan bertan, Belartzan kokatua dagoen Gisat S.Coop-ek gauzatu du. 76 plakek osatzen duten instalazioak 50.000 euroko kostua izan du eta erdia baino gehiago Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntza baten bitartez ordaindu dute.

Hala ere, orduz geroztik, proiektua geldirik dago, Iberdrola energia enpresak jarritako oztopoak direla eta. Inguruko hornitzaile bakarra den aldetik, Iberdrolari dagokio plakek behar duten kontagailua non eta nola jarri zehaztea.

Horretarako, ezer baino lehen, komunitate eskatzaileak txosten bat aurkeztu behar du. Txostena erantzuteko bi hilabete ditu enpresa energetikoak, eta orduan hasten dira trabak. Izan ere, kooperatibako kideek salatu dutenez, “unean bertan konpondu daitekeen akats nimiño” batengatik ere atzera botatzen dute, eta berriz hasi beharra dago. Ondorioz, urrian jarritako instalazioa oraindik ere ezin izan dute erabili. Eta kooperatiba osatzen duten kideentzat premiazkoa da proiektua lehenbailehen abiatzea, plaketan jarri duten inbertsioa dela-eta.

Añorgakoa, ordea, ez da Iberdrolak atzeratu duen lehen kasua, ezta bakarra ere. Are gehiago, jakin dugunez, Donostian bertan ere Udala parte den hainbat proiektu egoera berean daude.

Krisi ekologikoa azkartzen ari da eta klima aldaketaren ondorioak gero eta nabarmenagoak dira. Horrek nahitaz egin beharreko trantsizio sozio-ekologikoa azkartzea premiatzen du, eta prozesu horretan baita, energia trantsizioak berebiziko garrantzia du. Baliabide iraunkor eta berriztagarrietan oinarritutako energia ekoizpen eta kontsumo eredu berri batera egokitu beharrean gaude. Baina energia gizartearen ongizatea bermatzeko funtsezko ondasuna da, eta, honenbestez, ekimen publikoari dagokio egokitzapen prozesu hau gizartearen interes komunaren zerbitzura gauzatuko dela bermatzea.

Larrialdi klimatiko egoeran, administrazio publikoak aitzindaria eta eredugarria izan behar du bere jardun eremuan. Baina ez hori bakarrik, sektore publikoa interes orokorra lehenetsiko dela bermatzeko dago. Horregatik, honako mozio hau aurkezten dugu:

### **MOZIOA ARRUNTA**

1.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Iberdrola energia enpresari ez ditzala oztopatu Donostian abian dauden edo abiatzear dauden Energia Berriztagarrien Komunitateen proiektuen garapenak.

Donostian, 2024ko otsailaren 2an

Juan Karlos Izagirre Hortelano  
EH BILDU udal taldeko bozeramailea